# BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

## ❖ Online komunikatzeko kanalak:

-***Web orrialdea:*** Web orri bat izatearen helburua gure zerbitzuak eskaintzen duenaren berri ematea eta gure zerbitzuaren azken berrikuntzen berri ematea izango litzateke. Oro har, gure zerbitzuak eskaintzen duen guztia eta bezeroentzat eta gure zerbitzuak nola funtzionatzen duen jakiteko interesa duen jendearentzat lagungarri izango diren beharrezko informazioak.

Laburbilduz, orrialdeak beste maskara batzuen soka birziklatuekin maskarak egiten dituen enpresarekin dugun aliantzaren berri emango du, baita zerbitzu honen helburuaren eta gure zerbitzutik gertu jakin beharreko beste gauza interesgarri eta beharrezko askoren berri ere.




**SARE SOZIALAK**:

-***Instagram:*** Ez du inolako kosturik izango. Sare sozial hau, elkartearen azkeneko berriak publiko egiteko erabiliko ditugu. Komunikatzeko beste kanalekin konparatuz, jarrera informalagoa hartuko du. Gizartearenzat erreferente izan daitezkeen famatuak kontratatu eta gure elkartea goraipatzen bideoak grabatuko ditugu.

INSTAGRAM-AREN KONTUA: mali@gmail.com

-***Facebook:*** Aplikazio honek ere ez du inolako kosturik izango, astean lau post argitaratuko ditugu non labur-labur azalduko dugu gure erakundea zertan datzan. Horrela, jarraitzen gaituen jendeak eta gure proiektuan interesa duen jendeak inolako arazorik gabe izango du informazioa jasotzeko aukera.

FACEBOOK-AREN KONTUA: mali@gmail.com

-*Pinterest:* Aplikazio hori erreferentzia gisa erabiliko dugu hainbat ideia hartzeko eta erreferentzia bezala gure zerbitzuaren inguruko liburuxken (folletoak) egitura edo formatua sortzeko, ondoren, postontzietara botatzeko publizitatea egiteko helburuarekin.

- Off-line publizitatea eta komunikazioa:

Gure zerbitzua off-line hedatzeko, ekintza hauek egingo ditugu:

- ***Buzoning:*** Elkartearen izaera eta honek dauzkan helburuak azaltzen duen testuak.



- ***Esku-orriak:*** Jendea pilatzen den guneetara joan eta esku-orriak banatuko ditugu (gizarte-etxean, zineman, enpresa handien irteeran besteak beste). Bertan, enpresaren xedea eta gure elkartea erabiliz lortu dezaketen eskaintzak eta abantailak azalduko ditugu.



- ***Parabrising***: Liburuxkak utziko ditugu autoetako parabrisetan, musukoen-edukiontzitik 3 km-ko eremuan. Ekintza honen bidez, jendea beste modu batean erakarriko dugu, horrela erabat informatuta egon dezaten.

